

Zerga paradisuak

Kapitalismoaren babesleku

Banka handia salbatzeko helburuarekin funts publikoetatik bilioika dolar jartzen diren bitartean, hortxe jarraitzen dute munduko zerga paradisuak, munduko aberastasunaren laurdenaren ezkutaleku. Haietara jotzen dute banku gizon-emakumeek, multinazionalak, espekulatzailerak eta narkotrafikatzaileak, zergak saihestu eta zuritzeko.

DANIEL UDALAITZ

EKONOMIA ETA INDUSTRIAREN gaur egungo krisia eragin duen munduko finantza krisia 2008aren hasieran sortu zen, eta planetako finantza, ekonomia eta politika erakunde guztietako alarmak piztu ditu. Bilioika dolar eta euro darabiltzate finantza kapitalismoa erreskatatzeko, eta batez ere banka eta munduko aseguru etxe handiak zulotik ateratzeko. Bitartean, bizkor baino bizkorrago hazten ari da langabezia mundu osoan; orain arte ezagutu gabeko mailetara iristen ari da. Krisi hau 1929ko Depresio Handia baino larriagoa da. Mundu osoko estatuburuak ezohiko goi bilerak egin dituzte eta bi aste barru G-20a biltzeko da Londresen. G-20ak zerga paradisuaren aurkako neurriak hartuko al du? Beldur gara ez ote duen beste alde batera begiratzeko jarraituko...

Munduko aberastasunaren laurdena gordetzeko lekuak

Nicolas Sarkozy Frantziako presidenteari nahiz Angela Merkel Alemaniako kantzilearrak iradoki dutenaren arabera, baliteke banka pribatua erreskatatzeko erabili beharreko diru publikoaren zati bat zerga para-

Atzerriko kapital eta mota guztietako ondaretan 11-13 bilioi dolar daude ezkutatuta bankuek, politikariek, espekulatzailerak eta narkotrafikatzaileak erabiltzen dituzten zerga oasietan

disuetara desbideratu izana. Nazioarteko Moneta Funtzaren (NMF) datuek erakusten dutenez, paradisu horietan ezkutatzen da munduko aberastasunaren laurdena. NBEk egindako kalkuluen arabera, zergak ordaintzea nahikoa litzateke horiek osatzen duten zenbatekoarekin milurteko helburuak erraz betetzeko. Michael R. Krake nazioarteko adituak dioenez, aberatsek eta ondasun kopuru handiak dituztenek ondarearen %30 daukate jarrita paradisu edo *offshore* finantza plazetan. Gordailu eta inbertsio gehienek Ekialde Ertainean, Asian eta Mendebaldeko Europan daukate jatorria, eta Suitzako banketxeek kudeatzen dute gordailu horien zati handi bat.

Munduko banku gordailu guztien bosten bat baino gehiago (%23) zerga paradisuetan dago; kalkulu kontserbadoreen arabera, gutxienez 3 bilioi dolarreko kopurua da hori. Atzerriko kapital eta mota guztietako ondaretan 11-13 bilioi dolar osatzen duen kopurua horrelako "finantza" zentroetan dago ezkutatuta. Mugaz gaindiko munduko finantza transakzioen ia %50 pasatzen da halakoetatik —esate baterako,



Apirilaren 2an bilduko da G-20a Londresen (goiko irudian, azken bilkura, 2008an, Washingtonen). Zalantzazkoa dirudi munduko agintari politiko boteretsuenek zerga paradisuak buruzko erabakirik hartuko dutenik, ez dutelako orain arte oasi horiei errotik erasotzeko borondaterik erakutsi.

Kaiman uharteak dira munduko bosgarren banku zentroa—. Tax Justice Network elkar-teen analisi zuhurren arabera, kapital ihesak jasotzen dituzten herrialdeek urtean 300.000 milioi dolar inguruko zerga galerak eragiten dituzte.

Zerga oasi hauen garrantziaz ohartzeko, 22.000 biztanle besterik ez dituen Birjina uharteetan atzerriko 500.000 enpresatik gora daudela erregistratuta aipatu besterik ez dago. Gibraltarrek, 30.000 biztanlerekin, 70.000 sozietate baino gehiago dauzka erregistratuta. Kaiman uharteetan 544 banketxe daude, eta denen artean 420.000 bat milioi dolar dauzkate gordailatuta; uharte horietan 30.000 enpresatik gora daude erregistratuta. 2006. urtean, Espainiako IBEXen kotizatzen duten 18 enpresak izan zuten presentzia zerga paradisetan. Bes-

teak beste BBVA, Santander, Banesto, Sabadell eta Popular banketxeek, Prisa taldeak, Iberdrolak, Repsolek eta Telefónica.

Zer dira zerga paradisuak?

Wikipedia entziklopediaren arabera, zenbait zerga oso txikiak dituen edo ez dituen lurralde edo estatua da zerga paradisu. Zerga motaren arabera jurisdikzio bat edo bestea izaten da zerga paradisu. Hortaz, pertsona eta konpainia motaren arabera, zerga paradisu batera edo bestera jotzen da. Zerga paradisuez baliatzeko modu bat, pertsona edo konpainia herrialde horretara joatea da, edo bertakotzea, zergen onuradun izateko. Zerga paradisu aparteko entitate juridiko edo subsidiario bat ezartzea da beste modu bat (lurraldeaz kanpo konpainiak —offshore— edo fundazioak).

Zerga paradisuak

Zergei garbi-garbi edo ez hain erraz saihets edo ihes egitea herrialdeetako legeen eta konpainia edo norbanako inplikatuaren egoera berezien arabera izaten da. Herrialde askok, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolamenduko (ELGA) kide direnek gehienbat, bertakoak konpainien jabe egiteko –edo inbertsioak egiteko– trabak jartzen dituzte legeen bitartez, zerga paradisuaren edo herrialdean bertan zergarik ordaindu gabe gera ez daitezen. Bestalde, herritarrek zerga bikoitzak ordaindu behar ez izateko, zenbait herrialdek bi aldeko zerga itunak izaten dituzte, baina gutxi dira zerga paradisuarekin horrelako itunak dauzkatenak.

Nola funtzionatzen dute?

Aberatsentzat eta ondasun kopuru handiak dituztenentzat oso erraza da zergak saihesteko zerga oasietara jotzea. Gainera, guztiz legezkoak dira –estatu bakoitzak subiranotasuna dauka bere lurraldean; beste kontu bat da zergak saihesten dituen bere herrialdean delitugilea izatea– eta, hortaz, Interneteko atariak izaten dituzte bezeroei zerbitzuak libreki eskaintzeko. Esate baterako, Googlen “offshore banking” hitzak sartu besterik ez dago Panamako zerga paradisu batera iristeko. *Financial Times*eko edo *Wall Street Journal*eko orrialdeetan ikus daitezke zenbait ehunka libarren truke Bahama uharteetan, Gibraltarren edota Jerseyen norberaren enpresa haien izenean erregistratzea eskaintzen duten konpainien iragarkiak.

Abokatuen bulego batek konpainia fantasma bat eratzen du (fideikomisoa edo trusta), eta zenbait ehunka edo milaka euroekin –diru gehiago edo gutxiago behar izaten da zerga paradisuaren arabera– legezko aholkularitza eta kontu numeratu bat lortzen da.

Sarkozy eta Merkel beldur dira krisialditik ateratzen laguntzeko asmoz banka pribatua erreskatatzeko erabili beharreko diru publikoaren zati handi bat ere ez ote den paradisu horietara desbideratu

Konpainia fantasmen konturako bidalketak finantza pasabideen bidez egiten dira, herrialdetik herrialdera, kontutik kontura, diruaren arrastoak ezabatzeko. Inprimaki bat Internet bidez bete eta martxan jartzen da herentzien, zergarik ordaintzen ez duen diru beltzaren, kaudimen gabeziarengatik arriskuan dagoen ondarearen, ondasun higiezinakotako komisioen eta abarren aitorpena saihesteko mekanismoa.

Zerga paradisuak propio diseinatuta daude administrazio kontseilu handiek, diktadoreek, narkoek, trafikatzaleek... behar ez bezala irabazitako edo saihestutako dirutzak gordailatu, gorde, inbertitu edo berreskuratzen. Aholkularitza zerbitzu sofistikatuak, zerga bulegoak, auditoria enpresak eta, nola ez, eragiketa mota honetan espezializatuta dauden legezko bankuen sukurtsalak dauzkate. Banku, merkataritza, administrazio eta erregistro sekretua darabilte, eta herrialde horietako zerga administrazioak ez du inolako elkar laguntza, lankidetzaren edo informazio trukekin onartzen beste administrazioekin.

Batzuk, harrapatuta

Txiletik kanpo 125 banku konturekin “harrapatu” zuten Pinochet; 27 milioi dolar gordetzen zituen beroietan. Deigarri ez gertatzeko gezurrezko izenak erabiliz hainbat zerga oasitan sozietate fantasmak sortzen lagundu zion Washingtongo Bankuak diktadore txiletarrari. Banketxei dagokienez, Deutsche Bank banketxe alemaniar nagusia eta 10.000 bezero 200 milioi eurotik gora ordaintzera kondenatu zituzten 2003an, zergak ez ordaintzeagatik. Emilio Ybarra BBVko lehendakari ohia ere, ikertua izan zen Liechtensteinen eta Jersey uhartean zeuzkan kontu sekretuetan bere administrazio kontseiluaren pentsio

agua  ura
ALZOLA

**berez
mugatua**

Tel.: 943 740 288 · Faxe: 943 743 557 · www.alzola.com · alzola@alzola.com

Zerga paradisen munduko mapa



Iturria: ATTAC (www.attac.org)

G-20ak zerga paradisu diren munduko 42 herrialdeko zerrenda ofiziala darabil, ELGAk zerrenda 47koa dela dio. Zerga adituek diote, ordea, gutxienez 70 unitate politiko bizi direla funtsean atzerriko diru eta kapitala erakarri eta babes-tetik. Mapan ikus daiteke zerga oasien kokapen geografikoa. Hona hemen garrantzitsuenak: Bahamak, Bermuda

uharteak, Gibraltar, Jersey uhartea, Man uhartea, Kaiman uharteak, Birjina uharte britainiarrak, Liechtenstein, Malta, Panama eta Seychelleak. Erresuma Batua ere zerga paradisua da egoitza atzerrian duten pertsonentzat. Bertan bizi direnek ere ez dute zergarik ordaintzen Erresuma Batura bidaltzen ez dituzten atzerriko diru-sarrerengatik.

Irlandako egoera berdintsua da. Suitza zerga paradisua da bertako bihurtzen diren atzerritarrentzat. Horretarako, zein kantoitan bizi nahi den, kantoi horrekin negoziatu behar da lehendabizi diru sarreretatik zenbateko kopurua ezarri nahi den zergapean. Monakok eta Andorrak ez dute norberaren diru sarre-
ren gaineko zergarik kobratzen.

handien mesedetan egindako “finantza ingeniariatzako” eragiketengatik. Urrutira joan gabe, aurtengo otsailean bertan azaleratu da PPren inguruak zipriztindu dituen zerga paradisuei lotutako azpilana.

G-20aren goi bilera

Orain arte estatuek beste alde batera begiratu dute, banku gizon-emakume boteretsuak

eta multinazional handiak, hau da, estatuen sostengatzaileak izan baitira zerga paradi-
suak erabili dituztenak. G-20aren azken goi-
bileran, 2008ko azaroan Washingtonen egin-
dakoan, esaldi hau bota zen azken adierazpe-
nak egiteko garaian: “Behar-beharrezkoa da
zuzentzea gardentasun falta eta zerga infor-
mazioa elkar trukatzeko zailtasunak”. Hitz
horiekin nolabaiteko erreferentzia egin

Petrolioaren trikimailutik gaur egungo paradisueta

Bada oraingo zerga paradisuen jatorria Erdi Aroan edo Delaware eta New Jerseyko estatuetako XIX. mendearen bukaera aldeko *dumping* fiskaletan kokatzen duenik. Beste batzuek, banku sekretua urratzearen aurka 1934an Suitzan ezarritako legean ikusten dute jatorri hori. Alabaina, zerga paradisuen sareak 60ko hamarkadan izan zuen benetako abioa. Petrolio enpresak izan ziren urte haietan zergak saihesteko eskema eragile bat diseinatu zutenak. Sistema hark, gainera, petrolio gordina erauzten zuten herrialdeei ahalik eta gutxien ordaintzeko balio zien. Itsas garraioko istripuen ondorioak saihesteko, kasuaren arabera komeni den banderadun itsasontziaren (Liberia, Panama...) trikimailua asmatu zuten. Egoitza herrialde horietan zeukan enpresa pantaila batek petrolio-ontzia pleitatzen zuen eta petrolio enpresak garraio enpresei saltzen zien petrolio gordina. Exxon Baldezena bezalako hondamendiren bat gertatuz gero, erantzuleak ondarerik gabeko konpainia fantasmak izaten ziren eta hala zirenez, ezin izaten ziren enbargatu. Horrela,

aseguru gastu itzelak saihesten zituzten petrolio enpresek. Nazioarteko agentziek eta estatuek sistema onartu egiten zuten, modu horretara petrolio merkeagoa izaten zelako. Berehala sortu ziren imitatzailak meatzaritza multinazionaletan, eta antzeko sistemak ezartzen hasi ziren. 22 herrialde-tan banatutako 476 multinazionaleri Ernst & Young-ek 2005ean egin-dako inkesta batek adierazten du %77k transferentzia prezioen estrategiak erabiltzen zituztela zergak saihesteko.

Offshore finantza zentro modernoak (zerga paradisuak) jokoan sartzeko, beharrezkoa zen AEBetatik kanpo eta AEBen finantza arautegitik kanpo dolarren kontu "pribatuei" eustea ahalbidetuko zuen egitura instituzionala. "Pribatutasun" horrek banku sekretupean dauden kontu numeratuak esan nahi du. Justifikatzeko zailak diren funtsak gordailatu eta transferitzeko lekuak sortu nahi zituzten. Eurodolarren merkatuak eragin zuen lehenengo toki "bereziak" agertzea. Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasunak dolarretan zeuden kontuak behar

zituen munduko gainontzeko herrialdeekin merkataritza eragiketarako egiteko, baina ez zituen AEBetako banketxetan eduki nahi, errepresalien beldur. Banke-txe ingelesek heldu zioten negozio horri, arautegi estatubatua-rraren atzarretatik at egongo ziren dolarretako kontuak irekiz horretarako propio sortutako sukurtsaletan.

Banka estatubatuarrak, negozioaz jabeturik, kontu numeratu sekretuak zeuzkaten sukurtsalak ezarri zituen gero Londresen. Gobernu britainiarrak kapitala sartzea behar zuen liberaren parekotasunari eusteko eta, horregatik, eurodolarren merkata babestu –kasu honetan euro-liberarena– eta Mantxako Kanaleko uharteetan nahiz Ipar Itsasokoetan zerga paradisuak sortzea bultzatu zuen, mafiaren, narkoen, diktadoreen eta abarren kapital fluxu gero eta handiagoak bere monetara erakartzeko. Alabaina, agintari estatubatuarrak izan ziren beranduago antolakuntza instituzional hori sustatu eta zerga paradisuak ugaritzea eragin zutenak.

zitzaian "oasi" horiei. Beranduago, "koroa-ren menpeko lurraldeetako arautegiak berri-kusiko ditugu" iragarri zuen gobernu britai-niarrak, Kanaleko uharteak, Man uharteak eta Gibraltar ere tartean sartuz. Londresko *The Times* egunkariak ziurtatu duenez, ekimen

britainiar horren ondorioz "zerga paradi-suen kontrako neurri gogorrak" ezarriko dira. Lehendakari iparramerikar berria ere porrot egin duen "zerga paradisuen neurri-gabekeriaren aurkako" lege proiektuaren alde azaldu da.




Hernani

Martxoaren 27tik apirilaren 5era

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



Ezkerreko irudian, Pinochet: Txiletik kanpo 125 banku konturekin "harrapatu" zuten diktadorea. Eskuinean, BBVA banketxea, IBEXen kotizatzen duten beste hamazazpi enpresekin batera zerga paradisuetan presentzia duen bankua, 2006ko datuen arabera.

Apirilaren 2an egingo du G-20ak hurrengo goi bilera, Londresen. Zerga paradisuak buruzko erabakirik hartuko al du? Zalantzazkoa dirudi, orain arte, kapitalismoaren, ondasun kopuru handien, mul-

tinazional handien, banka handiaren, espekulatuzaile handien babesleku diren zerga paradisuak errotik eraso egiteko borondate politikorik ez dagoela erakutsi baitute horrelako goi bilerek. ■




SAN MARKOS-EKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS



HONDAKINEN KUDEAKETA ETA TRATAMENDUA
GESTIÓN Y TRATAMIENTO DE RESIDUOS

www.merka2sanmarcos.org

**BIGARREN
ESKUKO
MERKATUA
INTERNETEN**

MERCADO
DE SEGUNDA
MANO EN
INTERNET



www.gipuzkoa.net/san-marcos

edalontzi berrerabilgarriak

Jaietan hondakin gutxiago sortu nahi izanez gero... San Markoseko Mankomunitateak edalontzi berrerabilgarriak eskura uzten dizkizu. Zerbitzua dohakoa da. ANIMA ZAITEZ!

vasos reutilizables

Si quieres generar menos residuos... la Mancomunidad de San Marcos, te ofrece vasos reutilizables de forma gratuita. ¡ANIMATE!

C/ Vitoria-Gasteiz 10 - 20018 DONOSTIA
T. 943 21 49 77 - 943 21 44 78
F. 943 21 89 83

msanmarcos@udal.gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/san-marcos